

Ermuko 1. ihardunaldi musikalak

Dirua agian bai, baina lanerako gogo ez da faltan izan Ermuko Rock Taldeen kolektiboak antolatutako 1. ihardunaldi musikaletan.

Tick, Bilboko rock taldeak eman zion hasiera egitaruari, abenduaren 10ean eskeinitako kontzertuarekin. 50 bat pertsona bildu ziren Zuloa kultur elkarteak Goienkalen daukan lokalean. Herriko Kalle 12 taldeak ezin izan zuen jo, aurretik espero zen bezala baina Tick-ekoek ondo bete zuten ermuarrek utzitako hutsunea. Dena den, hura rock and roll-ez eta dibertsioz beteriko arratsalde beroa izan genuen. Hala ere, ihardunaldien arratsalde beroena hurrengo eguneko izan zen, Storbais eta Necrosis taldeek ehun pertsona baino gehiago dantzan jarri bait zituzten. Ermuarrak lehenengoak eta arrasatearrak bigarrenak, bi taldeek soinu gogorrak dituzte gogoko, hots, hardcore eta trash-a, eta argi utzi zuten Ermuan soinu azkar eta zatatsuen jarraitzaileak badirela, ta sekulako martxa dugula gainera.

Lehenengo asteburuan bi kontzertu izan bagenituen ere, hurrengo astebururako antolatutako ekitaldiak bestelakoak izan ziren: argazki erakusketa, hitzaldi bat eta beste kontzertu bat.

Bi aste hauetan zehar Ermuko Rock



Zuloan ez zen martxarik falta izan.

Taldeak kolektiboko kide den "Txino"-k hainbat kontzertutan ateratako argazkien erakusketa izan genuen ikusgai Zuloan. Azken urteotan, izandako talde desberdi-

nen kontzertuen erreportai grafiko izugarri ona da gazte honek lortutakoa.

Abenduaren 17an, sortuberria den Eibarko Rock Taldeen kolektiboko hainbat partaide etorri ziren alboko herriko rock taldeen egoeraren berri ematera. Eibarren 20ren bat talde dago eta udalak entsaiatzeko hainbat lokal eraiki behar omen du, gazteek hala proposatu ondoren. Aipatu zen baita ere, hemen Ermuan entsaiu lokal eza dagoela eta egoera honek zenbait talderen desagertzea suposatzen duela, bitartean, udalaren aldetik ez dela ezer egiten salatu zutelarik.

Asteburu musikal hauei bukaera emateko The Pepes ermuarrak eta Une Latzak laudiotarrak izan ziren entzungai, abenduaren 18an, emandako kontzertuan.

Aipatzekoa da baita ere, "Fox" ermuar margolari gazteak egindako margoek kolorez jantzi zutela eszenatokia, giroa alaituz.

Esan beharra dago 80 hamarkadan Ermuan izandako rock mugimenduari buruzko solasaldia beste hurrengo baterako utzi zela; hala ere, musika maite dutenek elkarrekin ondo pasatzeko aukera ezin hobea izan dugu eta laister errepikatzeko asmoa ez da falta.

Markos Gimeno

ZABAL AKAITA


JAI ALAI Taberna

PATXI Taberna

Bar EGO-GAIN

Bar AIZGORRI

ZARAUZTARRA Jatetxea



EGOSI Dastatokia

MENDIOLA JATETXEA

HERGA Kafetegia

Bar GREDOS

SIRIMIRI

GANBARA Bar

TXALAPARTA Taberna